

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresarentzat, funtsezko baliabideak oso garrantzitsuak izango dira gure produktua aurrera eraman ahal izateko.

Baliabide fisikoak kontuan hartuta, lokal batean egingo dugu lan, 200m karratuekin eta makineria, lehengaiak, altzariak, bulegoetako materiala eta produktu bukatuak edukiko ditugu bertan.

Baliabide intelektualak kontuan hartuta eta giza baliabideak direla eta, bezeroen artean hainbat trebetasun ditugu.

Enekoren kasuan, bere ezagutza teknologikoa izango da, diseinuari dagokionez, Igorren sentsibilitatea diseinatzerako orduan eta bere gaitasunak, Maialenen komunikatzeko gaitasunak marketinarean ibiltzeko, finantzei dagokienez, Aneren trebetasuna, I+D taldeko bi jakintsuak gure produktua hobetzeko garaian, eta azkenik, produktua ekoizten dutenen ezagutza informatiko eta mekanikoak.

Finantza-baliabideak kontuan hartuta, gure proiektuak hasieran inbertsio handia egin beharra eskatzen du. Lau bazkide gara (Eneko, Ane, Maialen eta Igor) eta bakoitzak 150.000 euro jarriko ditu, beti ere, mailegu bat eskatuta.

Batez ere, hainbat material erosteko, soldatak ordaintzeko, edozein motatako erosketak egiteko, negozioa zabaltzeko edota kreditu lineak izateko erabiliko dugu inbertsio hori.